

AURRERA FEST 2023

ZER DA AURRERA FEST?

Gure artistak sustatu eta ezagutzera emateko asmoz BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK eta EUSKALDUNA BILBAOK sustatutako tokiko artisten jaialdi bat da.

EUSKALDUNA BILBAOK tokiko artisten esku utziko ditu bere instalazioak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak, herritarrak artista horiengana eta haien sorkuntzetara hurbiltzea errazteko.

NORK PARTE HAR DEZAKE?

Zuzenean garatzeko proiektu bat proposatzen duen artista, musika-talde eta arte eszenikoen talde orok.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Ekoizpen propioko ikuskizunak eta kontzertuak eskaintzen dituzten sustatzaileei, konpainiei, profesionalei eta talde artistiko profesionalei.

Eremuak: antzerkia, musika, dantza eta beste ikuskizun batzuk.

Eszenatokian egin daitezkeen ikuskizun eta kontzertuak, besaulkidun aretoetarako.

Gutxienez 50 minutuko eta gehienez 90 minutuko emankizuna, atsedenaldirako aukerarik gabe.



www.euskalduna.eus



AURRERA FEST 2023

Noiz arte aurkez daitezke eskaerak?

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea 2023ko ekainaren 30an amaituko da.

Non aurkeztu behar dira eskaerak?

Eskaerak events@euskalduna.eus helbide elektronikora bidali beharko dira.

Zer informazio aurkeztu behar da?

Eskaerarekin batera emanaldi-proposamen bat aurkeztu beharko da, non, besteak beste, honako informazio hau eman beharko den: emanaldiaren iraupena, bertan parte hartzen duten artistak eta ikuskizunaren deskribapen laburra.

Nork eta nola egingo da hautaketa?

EUSKALDUNA BILBAOko langileek egingo dute hautaketa, eta sektoreko profesionalen aholkuak jaso ditzakete.



www.euskalduna.eus



AURRERA FEST 2023

EUSKALDUNAREN ekarpena:

- Aretoaren erabilera lagatzea: **0€ ARETOA**
 - Soinu eta argiztapen ekipoak, aretoak berak dituenak muntatuta ikuskizuna egingo den egunean.
 - Funtsezko langile teknikoak, areto bakoitzeko laguntzaile gisa.
- Oharra:** sustatzaileak, konpainiak edo taldeak bere gain hartuko ditu ekitaldia teknikoki garatzearen gastu guztiak.

- Baliabide tekniko materialak (aretoak dituenak)

Oharra: sustatzaileak, konpainiak edo taldeak behar bezala kontratatutako langileak eta material teknikoa ekarri ahalko ditu ikuskizuna egiteko.

- Aretoko akomodazio-zerbitzua
- Txarteldegiko zerbitzua
- Ikuskizunen sustapena eta Komunikazioa

Ikuskizunaren diru-bilketaren **%85** konpainiarentzako izango da, dagozkion gastuak kendu ostean (*).

(*) Leihatilan lortutako diru-bilketa, BEZa, egile-eskubideak (halakorik egotekotan) eta ticketing gastuak kendu ondoren



www.euskalduna.eus



AURRERA FEST 2023

Parte hartzaileei eskatuko zaizkien BALDINTZAK:

- Ikuskizunean parte hartzen duten pertsona guztiek lan- eta segurtasun-arloan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.
- Ez da inola ere ulertuko EUSKALDUNA BILBAOrekin lan-harreman bat dagoenik.
- Artistek ikuskizuna eskaintzeko nahikoa eskubide izan beharko dute.
- EUSKALDUNA BILBAOk eskatutako informazioa eman beharko dute, betebeharrak legalak betetzen dituztela bermatzeko.
- Sarrerak EUSKALDUNA BILBAOk ezarritako salmenta-bidearen bidez saldu beharko dira.



www.euskalduna.eus



AURRERA FEST 2023

TIMING-a: Data orientagarriak

2023ko ekainaren 16an

Deialdiari hasiera ematea.

2023ko ekainaren 30an

Proposamenak jasotzeko azken eguna.

Uztailaren 3ko astea

Artistekin harremanetan jarriko gara euren emanaldien daten berri emateko.

2023ko uztailaren 21ean

AURRERA FEST 2023 programaren kartela iragarriko da eta ikuskizunetarako sarrerak erosteko salmenta aktibatuko da.

Abuztuaren 18tik irailaren 10era

AURRERA FEST 2023



www.euskalduna.eus



AURRERA FEST 2023

Eskerrik asko!



www.euskalduna.eus

